

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	Uribe-Kosta B.H.I.	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	Batxilergoa	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	2
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Administrazio eta kudeaketa oinarriak		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Hizkuntzak, matematika, kultura zientifikoa, Enpresa, Geografia, Historia		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>	1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia 2. Matematikarako konpetentzia 3. Zientziarako konpetentzia 4. Teknologiarako konpetentzia 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa 6. Arterako konpetentzia 7. Konpetentzia motorra		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Gontzal Alcorta Garai	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018 - 19

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Enpresak sortzeko jarduerarekin lotzea enpresa-berrikuntzako faktoreak.	1.1. Enpresa-berrikuntzaren nondik norakoak antzematen ditu eta berrikuntzak garapen ekonomikoan eta enplegu-sorreran duen garrantzia

<p>2. Enpresa kokatuko den jarduera-sektoreko informazio ekonomikoa aztertzea.</p> <p>3. Negozio-idea aukeratzea, hautaketa modu teknikoan baloratuz eta argudiatuz.</p> <p>4. Enpresaren barne-antolakuntza, forma juridikoa, kokapena eta behar dituen baliabideak aztertzea, eta zer alternatiba dauden eta proiektuarekin adierazitako helburuak balioestea.</p> <p>5. Enpresa sortzeko lege-izapideak eta egin beharrekoak aztertzea.</p> <p>6. Enpresa martxan jartzeko beharrezkoa den dokumentazioa kudeatzea.</p> <p>7. Helburuak eta hornidura-beharrizanak ezartzea.</p> <p>8. Hornitzaileak aukeratzeko prozesuak egitea, baldintza teknikoak aztertuz.</p>	<p>azaltzen du.</p> <p>1.2 Enpresa-berrikuntzako proiektuak ezagutzen ditu eta haien arrisku-elementuak aztertzen ditu.</p> <p>1.3 Teknologiaren eta Interneten garrantzia balioesten du, berrikuntza-faktore giltzarriak diren aldetik, eta enpresaren internazionalizazioarekin lotzen du berrikuntza.</p> <p>2.1 Negozio-ideiari dagokion enpresa-sektorea aztertzen du.</p> <p>2.2 Hautatutako negozio-ideiari dagokion merkatua eta haren baitako lehia aztertzen ditu.</p> <p>3.1 Enpresa-ikuspegitik azaltzen du ekintzailearen figuraren alderdi askotarikoak.</p> <p>3.2 Negozio-idea baten alde egitearen ondorioak ebaluatzen ditu.</p> <p>3.3 Negozio-idea egingarrien proposamenek dituzten alderdi onuragarriak eta eragozpenak aztertzen ditu.</p> <p>3.4 Bere ikuspuntuak azaltzen ditu, jarrera proaktiboa du, eta ekintzailea da.</p> <p>3.5 Taldean lan egitean, sarri hitz egiten du taldekideekin, enpresa-proiektua aurrera eramateko.</p> <p>4.1 Ezagutzen ditu enpresen xedeak eta helburuak, eta haien antolamenduarekin lotzen ditu horiek guztiak.</p> <p>4.2 Enpresaren gizarte-erantzukizun korporatiboaren gaineko hausnarketak egiten ditu eta negozioek etika bat badutela balioesten du.</p> <p>4.3 Enpresaren forma juridikoaren eta kokapenaren hautaketa justifikatzeko arrazoiak ematen ditu.</p> <p>4.4 Enpresen organigramek ematen duten informazioa ulertzen du eta badaki zer-nolako garrantzia duen lanpostu bakoitzeko lanak eta eginkizunak deskribatzea.</p> <p>4.5 Behar izango diren baliabideen aurreikuspenak egiten ditu.</p> <p>5. Badaki zer lege-izapide bete behar diren negozioak abiarazteko eta zer erakundetan egin behar diren izapide horiek.</p> <p>6.1 Badaki zer diren eta nola egiten diren enpresak abian jartzeko izapide fiskalak, lan-arloko tramiteak, Gizarte Segurantzarekikoak eta bestelako izapideak.</p> <p>6.2 Izapideak egin eta negozioa sortzeko legezko epeak betetzearen garrantzia balioesten du.</p> <p>7.1 Enpresaren hornidura-beharrizanen plangintza egiten du.</p> <p>8.1 Hornitzaileekin informazioa trukatzeko erabiltzen diren agiri askotarikoak identifikatzen ditu.</p>
---	--

<p>9. Hornitzaileekin izango dituen harremanen plangintza egitea, negoziazio- eta komunikazio- teknikak aplikatuz.</p> <p>10. Enpresaren produktuen edo zerbitzuen merkaturatzea eta marketina garatzea.</p> <p>11. Produktuen edo zerbitzuen merkaturatze- prezioak finkatzea eta lehiakideenekin alderatzea.</p> <p>12. Merkataritza-kudeaketari aplikatutako marketin-politikak aztertzea.</p> <p>13. Giza baliabideen kudeaketaren plangintza egitea.</p> <p>14. Langileak hautatzeko eta kontratatze-ko prozesuak sortzen duen dokumentazioa kudeatzea, indarrean dagoen araudia aplikatuz.</p> <p>15. Enpresaren eragiketek eragindako kontularitza-eragiketak kontabilitzatzea, kontabilitate-plan orokorrean ezarritako irizpideak betez.</p>	<p>8.2 Hainbat iturri erabiltzen ditu hornitzaileak online eta offline bilatzeko.</p> <p>8.3 Hornitzaileen eskaintzak lotzen eta konparatzen ditu, hautaketa-irizpide batzuk erabiltzen ditu, eta bakoitzaren alderdi onak eta txarrak azaltzen ditu.</p> <p>9.1 Negoziatzeko eta komunikatzeko zenbait teknika dakizki.</p> <p>9.2 Badaki zer etapa dauden hornidura-baldintzak negoziatzeko prozesuetan.</p> <p>10.1 Enpresaren produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko prozesua aztertzen du.</p> <p>10.2 Enpresaren balizko bezeroen ezaugarriak azaltzen ditu, eta badaki nola jokatzeko duten haren lehiatzaileak.</p> <p>10.3 Komunikazio-prozesuak eta gizarte-trebetasunak baliatzen ditu bezeroei arreta emateko eta merkataritza-eragiketak egiteko.</p> <p>10.4 Epe labur eta ertaineko salmenta-aurreikuspenak egiten ditu, kalkulu-orriak erabilia.</p> <p>11.1 Produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarriak erreparatu ondoren, prezioen gaineko zer estrategia erabili hausnartzen du, eta salneurria ezartzeko erabakia argudiatzen du.</p> <p>12.1 Bitartekoen plan bat egiten du, eta plan horretan, bezeroak erakartzeko sustapen- eta publizitate-ekintzak azaltzen ditu; batik bat, Interneten eta beste gailu mugikor batzuen bidez egiten direnak.</p> <p>12.2 Enpresak erabil ditzakeen banaketa- eta salmenta-kanalak balioesten eta azaltzen ditu.</p> <p>13.1 Enpresaren beharrezkoak ebaluatzen ditu eta lanpostuak aztertzen eta deskribatzen ditu.</p> <p>13.2 Langileak nondik har daitezkeen adierazten du eta langileak hautatzeko prozesuaren faseak zehazten ditu.</p> <p>14.1 Enpresak kontratazioaren alorrean betetzekoak dituen izapideak eta kontratu-agirien modalitateak aztertzen eta baliatzen ditu.</p> <p>14.2 Badaki kontratatze-ko zer diru-laguntza eta pizgarri dauden.</p> <p>14.3 Badaki enpresariak zer administrazio-betebehar dituen Gizarte Segurantzarekin.</p> <p>14.4 Langileak ordaintzeko prozesuko eta ordainketa-obligazioetako agiriak aztertzen ditu.</p> <p>15.1 Enpresaren ondare-elementuak erabiltzen ditu, kontularitza-metodologia balioesten du eta kontularitza-liburuen zeregina aztertzen du.</p> <p>15.2 Enpresaren kontularitza-lan nagusiak aztertzen eta azaltzen ditu.</p>
---	---

<p>16. Enpresak zer inbertsio- eta finantza-beharrizan dituen zehaztea eta zer finantza-alternatiba dauden jakitea.</p> <p>17. Enpresaren bideragarritasuna aztertzea eta egiaztatzea, zenbait azterketa motatan oinarrituta.</p> <p>18. Negozioa abian jartzeko eskura dauden finantziario-iturriak aztertzea eta egiaztatzea.</p> <p>19. Enpresa-proiektua jendaurrean azaltzea eta komunikatzea.</p> <p>20. Proiektua komunikatzen eta aurkezten laguntzeko tresna informatikoak erabiltzea.</p>	<p>15.3 Amortizazioaren kontzeptua ulertzen du eta badaki haren kontularitza-erregistroa egiten.</p> <p>15.4Dagokien ekitaldi ekonomikoan aztertzen eta esleitzen ditu gastuak eta diru-sarrerak, horiek noiz ordaintzen edo kobratzen diren kontuan izan gabe.</p> <p>15.5Kontularitza-zikloa nola gauzatzen den ulertzen du, ekitaldiaren itxierako kontularitza-prozesua aztertzen du eta enpresak lortutako emaitza ekonomikoa zehazten du.</p> <p>15.6Kontularitzako obligazioak, betebeharrak fiskalak eta zergen aitortze-likidazioari dagozkion agiriak aztertzen ditu.</p> <p>15.7Kontularitzako aplikazio informatiko baten erabilera oinarrituta egiten du, horren bidez egiten ditu behar diren eragiketa guztiak, eta ziklo ekonomiko bati dagokion kontularitza-prozesua aurkezten du.</p> <p>16.1 Enpresaren inbertsio-plangintza bat egiten du, aktibo korrantea eta ez-korrantea jasotzen dituen.</p> <p>16.2 Enpresaren finantzazio-iturriak aztertzen eta hautatzen ditu.</p> <p>16.3 Badaki enpresak zer finantzazio-premia dituen.</p> <p>17.1 Enpresaren bideragarritasuna zehazten eta azaltzen du, alderdi ekonomikoan, finantzarioan, komertzialean eta ingurumenaren alorrean.</p> <p>17.2Inbertsioak hautatzeko metodoak erabiltzen ditu eta abian jartzeko behar diren inbertsioak aztertzen ditu.</p> <p>17.3 Altxortegiko aurreikuspen-egoerak lantzen ditu eta altxortegiko arazo puntualak konpontzeko zenbait alternatiba azaltzen ditu.</p> <p>18.1 Finantzazio-iturriak, finantzazioaren kostua eta laguntza finantzarioak eta diru-laguntzak balioesten ditu.</p> <p>18.2 Ulertzen ditu finantza-bitartekariak enpresen eguneroko jardunean eta gaur egungo gizartearen betetzen dituzten eginkizunak.</p> <p>18.3 Enpresaren alorrean hartu diren ordainketa-betebeharrak epean betetzearen garrantzia balioesten du.</p> <p>19.1 Komunikazio-trebetasunak eta arreta bereganatzeko teknikak erabiltzen ditu enpresa-proiektua jendaurrean azaltzean.</p> <p>20.1 Tresna informatiko eta ikus-entzunezko erakargarriak erabiltzen ditu proiektuaren zabalkunde eraginkorrari laguntzeko.</p>
---	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektua, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

LEHENENGO EBALUAZIOA:

1. ENPRESA ETA BERE INGURUA
2. ENPRESA SORTZEKO EMAN BEHARREKO URRATSAK
3. IDAZKARITZA ETA ARTXIBOA

BIGARREN EBALUAZIOA:

4. ADMINISTRAZIOA I
5. HORNIKUNTZA
6. EKOIZPENA
7. MERKATARITZA

HIRUGARREN EBALUAZIOA:

8. DIRUZAINNTZA ETA FINANTZAZIOA
9. GIZA BALIABIDEAK
10. ADMINISTRAZIOA II

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Gai bakoitzaren hasieran irakasleak gaia aurkeztu eta eskema bat egingo du landuko diren edukiekin. Hortik aurrera, irakasleen azalpenak eta ikasleen ekarpenak ulertuz eta laburtuz, ikasleek euren apunteak sortuko dituzte irakaslearen laguntzarekin.

Klasean ikasleen parte hartzea eta ekarpenak sustatu egingo dira, talde kohesioa eta errespetua indartuz.

Ikasleek banaka zein taldeka lan egingo dute gelan, eta ikaskideen aurrean euren ideiak defendatzeko eta ikuspuntua ezberdinak azaltzeko esparruak erretuko dira.

Klasean bideo, dokumental eta pelikulak ikusiko dira eta euren buruzko hausnarketa egingo da ere.

Urtean zehar enpresa bat ezagutzeko irteera bat egingo da.

Ekintzailtza lantzeko ekintzaileren baten bisita hartuko dugu bere esperientzia ezagutzeko.

Beste alde batetik gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko beren beregiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formazioa lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3. ebaluazioan zehar ikasgeletan gauzatuko da.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p> <p>Ebaluazio bakoitzean froga ezberdinak egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none">● Azterketa bat, non ikasle bakoitza bakarka ebaluatuko dugun.● Taldean egindako lan bat, non taldearen lana ebaluatuko dugun● Talde lanaren aurkezpena, non talde bakoitzeko kideen aurkezpena ebaluatuko dugun. <p>Froga hauek aparte, klasean parte hartze aktiboa eta lana ere ebaluatuko da</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p> <p>Froga bakoitzak bere pisu espezifikoak izango du:</p> <ul style="list-style-type: none">● Azterketak nota osoaren %60 izango da.● Taldean egindako lana nota osoaren %30a izango da.● Talde laneko nota kalkulatzeko, %50 taldeko lanaren nota izango da, eta beste %50 banakako aurkezpena izango da.● Azkenik, klasean parte hartze aktiboa eta lana nota osoaren %10 izango da. <p>Ebaluazioa gainditzeko, nota osoaren %50 lortu beharko da.</p> <p>Ebaluazio bakoitzean ikasleren bat ebaluazio horretako klase orduen %20 baino gehiago justifikatu gabeko ez-etortze kopurua baino handiagoa badauka, ebaluaziorako eskubidea galduko du, eta ebaluazio hori berreskuratzeko deialdi arruntera aurkeztu beharko da.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Ebaluazio guztien ostean gainditu gabe geratzen diren ikasleentzat (%20ko ez-etortze kopurua gainditu dutenak izan ezik) errekupeazio azterketa bat egingo da. Azterketa hori egin aurretik, ikaslearekin hitz egingo da indartze ariketak behar dituen ikusteko, eta hala bada, prestatu egingo zaizkio bere beharrezkoak arabera. Azterketa gaindituz gero bere nota 5 izango da ebaluazio horretan. Gaindituko ez balu, deialdi arrunten aurkeztu beharko litzateke ebaluazio hori gainditzera.</p>	



OHARRAK / *OBSERVACIONES*

Irakasgai hau ez dago bakartua eta ikastetxeko egitasmoi lotuta dago. Hona hemen egitasmo horiexek:

Agenda 21: Kontsumoaren kudeaketa arduratsua bultzatu eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Bizikasi: "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

Hezkidetzaren (Aniztasuna): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektua adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira.. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu. Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen